

TOKIKOM

2019ko abendua | 198. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Xabi Aburruzaga

*Folk
trikitilaria*



GalderPerezMaialenOlabarrietaGabonetakoEgitarauak



IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEA

Taileri kalea 6 DERIO 94 406 36 02

ban
BASERRIANTZOKIA

Txorierriko

ABESLARI, MUSIKARI eta DANTZARIAK

Baserri Antzokiko eszenara

Urtarrilak 31


Larrabetzuko Musika Eskola

Derioko Iparralde Abesbatza

Derioko Lainomendi dantza taldea

Aisialdia nahiz ekintza,
Baserri Antzokiko giltza



-  **4** Eritxiak
-  **5** Gutunak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Jose Antonio Perez, sukaldaria
-  **12** Gurean izan da... Galder Perez, antzerkigilea
-  **14** Gaztea eta... Maialen Olabarrieta, arraunlaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Mungialdeko Antzerkizale Elkartea
-  **20** Gai nagusia... Xabi Aburruzaga, trikitilaria
-  **25** Babestutako edukia... Maialen Monasterio
-  **26** Gabonetako egitarauak
-  **30** Berri Txarrak betiko
-  **32** Ispiluan... Begiak itxi
-  **33** Aikorrizketa... Eskerrik asko esateko egunak
-  **34** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa



14 Maialen Olabarrieta, arraunlaria



26 Gabonetako egitarauak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Belen Gana, Aitor Coteron, Idoia Andres, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola, Gaizka Peñafiel eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

**AITOR COTERÓN***Ikus-entzunezko ekoizle ekintzailea*

Berba potoloa: ekintzailletza

beharko leuke ekintzailearen baitan. Horrenbeste errepikatzen dan berba batek, nire ustez, indarra galtzen dau-eta; eta ondorioz, nortasuna. Berba potoloa bezain garrantzitsua da, etorkizuna erronkatzat jotzen dauen berba esanguratsua da. Ekintzailletza berbea lanean gogoz aurrera egiteko asmoz betetako berbea da, edo ilusino-geruza bilakatu da?

Bizitzearen joan-etorriak bakarrik erantzun deitun galderea da. Ekintzaile izatea ez da gauza erraza, eta sarritan, polita be ez. Egunerokoen lehentasunak sano aldatzen dira, eguna labur lotzen da, familiak aparteko ardurak hartzen dauz norberaren "ekintzailletzaren" ondorioz, lagun taldea zer dan be ahaztu egiten da, neke itzela dakar, emaitzak gura baino beranduago heltzen dira eta barreakaz batera negarrak be urteten dira. Ha-ta guzti be, sarritan gauzak ez dira gura moduan urteten. Ber-

ba hori askotan errepikatzeak momentuko motibazioa eragiten dau, burua berotzen dau, baina helburua lortu arteko bidea la-tza izaten da normalean, eta bide horretan erantzuten jako planteatu dodan galde-reari.

Dana dala, borondate oneko ekintzail-leak beharrezkoak dira, amankomunean daukiezan helburu orokorrei esker kobazuloetatik urten ginan eta. Nire kasuan, planteatutako galdereari sarritan erantzun deitso nire bizitzak.

Izan zaitezek ekintzaile, baina sakon hausnartu eta bide-lagunak ondo auke-ratu. Bidea ez da erraza izango. Zeuon helburu konkretuak ondo aukeratu, amankomuneko helburu orokorrak gizartearen mesederako izango baitira. Helburua bera da benetako motibazioa!

Bihotzez, eskerrik asko Ainarari, Juleni, Asierri eta nire familia osoari.

Gabonak badatoz berriro ere

Udazkeneko okre koloretsua amaitu da eta negua hasi zaigu. Garai hau gus-tuko dut: Hego-haize soroaren garaia pasatuta, elur-, beheko su- eta aurrera egiteko garaia da, barnera begiratu eta hausnarketa egiteko momentua. Gabonetan, umeei esker, tradizioak gordetzeko hainbat ekital-di egiten ditugula esango nuke: Olentzero, Mari Domingi, Gabon-kantak, arbola edo jaiotza ipintzea...; ez dakit nonbait urte berri-riaren eskatzera aterako den. Agian, Ameriketatik bueltan badator, "urte barri txarri belarri, dekonak eztekonari..." ibiliko dira kantu-es-kean gure umeak hurrengo urteren batean.

Garai hau hurbilekoekin ospatzeko da, eta ospatzeko moduak aldatzen doaz: bizi garen garaia egokituz, batzuk etxean, eta

beste batzuk landetxeetan edo jatetxeetan. Bestalde, lagun askori ez zaizkio Gabonak gustatzen, ziurrenik familian falta direnak gogoratzeak min ematen dietelako. Gure etxean, joandakoak presente igartzen ditugu, beharbada, gure amomak eta ama zanak alde bateko zein besteko familiengatik erre-zatzeko ohitura zutelako afaldu aurrean. Guk xanpain apur batez edo ardoz topa egiten dugu joandakoengatik eta gaudenongatik; gauzak aldatuz, baina gure artekoa sendotuz.

Jakina, asko dira ezin dutenak ospatu, bakarrik direnak, inor ez delako beraiez go-goratzen edo bakarrik egon nahiago dute-lako; Mercedes eskultura ipini dute Areatzan gai hori ikustarazteko, baina, gure kontzien-

**BELEN GANA***Euskaltzalea*

tzia apur bat astindu bada ere, gizarte hau gero eta berekoiagoa eta baliabideak gero eta urriagoak izanik, zer espero dugu balioak mantentzen ez baditugu?

Gabon zoriontsuak eta Urte Barri On, la-gunak. Gora bihotzak!



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezke-ro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Tootan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Asuako gazteek antolatutako bertso-afaria

Orain dala egun batzuk, bertso-afari arrakastatsua izan genduan Baserri Antzokian. Bai horixe, pasau dan urtean Asuako gazte batzuri akordau jaken bertso-afaria antolatzea, eta halantxe egin eben. Atxae-randio jatetxeko jantokia bete-bete egin eben gazte kuadrila bategaz.

Ha ikusita, aurten be gauza bardina egiteko, Irati, Aitziber, June, Uxue, Itxaso, Noe, Unai, Jon eta Paule (bateran bat itxi badot, parkatu) martxan parau ziran; Atxae-randio itxita dagoanez, Txorierriko Baserri Antzokia kultura-tokira joatea era-bagi eben.

Gazteak antolatzaile izanik, bertsolariak be gazteak izan behar eben, eta horretarako Ibai Amilategi, Enare Muniategi, Inazio Vidal eta Maddalen Ruesgas izan ziran aukeratuak. Baserria toki aproposa bihurturik, 135 lagun batu ginan bertan, hogeiren bat bateranoak eta beste guz-tiak gazte-gaztetxoak. Eta ni gehien poztu ninduna: 30 bat Loiukoak. Benetan, ikus-garria izan zan bertako giroa.

Aitziber Argiarrok gidatuta, lau bertso-lariak entzuleon arreta eta barrea lortzeko



kapaz soberan izan ziran, bertso saio ederra eskeiniz. Paulek esan euskun eurak be sinistu ezinik egozala jendearen erantzuna ikusita, eta horrek, batez be, indartu egiten zituala proposamen edo proiektu barriak aurrera eramateko. Bestalde, Paulek eskertu gura izan eban Gorkaren (Baserriko jatetxearen arduradunaren) laguntza eta prestutasuna ekintza ondo eramateko.

Eskerrik asko Asuako gazte talde horri, ekintza eder horregaitik. Seguru, Txorierriko bertsolaritzari beste bultzadaxo bat emoteko balio izan dauela, eta gure kultura-toki eder honeri be bai.

Iñaki Arbildu

Leire Etxaniz, txapelduna

Leire Etxanizek Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketako Lau eta erdiko finala irabazi du pilota goxoa kategorian. Etxebarrikoak 22 eta 13 irabazi zion Patri Espinarri Barakaldon, eta bosgarren txapela lortu zuen. Etxaniz Larrabetzuko Olarreta taldeko pilotaria da.

Txapelduna hasiera-hasieratik nagusitu zen finalean. Partidaren lehenengo txanpan, markagailuak 1 eta 8 adierazten zuen, eta Espinar arriskutzen hasi zen. Aldea apur bat murriztu zuen arren, min hartu zuen eskuan eta orkatilan. Gainera, Etxaniz sendo ibili zen eta ez zion aurkariari irabazteko aukerarik eman. Bestalde, kategoria mistoko finalean, Miriam Arrillagak Miren Larrarte hartu zuen mendean (22 eta 11).

Finalak ez ziren oso zirrargarriak izan, oreka handirik ez zelako egon. Hala ere, antolatzaileen esanetan,

“tanto bikaineekin gozatzeko aukera egon zen eta emakumeen esku-pilotak hazten jarraitzen du”. Era berean,

giro bikaina egon zen eta frontoia jendez gainezka bete zen. Bestalde, antolatzaileek saria eman zioten Txokoan Larrabetzuko taldeari. “Beraiek izan ziren aitzindariak: lehen elkarte sortu zuten eta emakumeen esku-pilotari bultzada handia eman zioten”, esan zuten.



 **Fle-apaindegia**
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

 **ZAMUDIO**
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO
Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami buzoa, 1
Tel.: 94 454 10 08
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBARTARITZA
Nerea Pedrosa Cole, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

 **SARRIKOLA**
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Gym Berdeak parte-hartzaile gazteagoak erakarri nahi ditu

Gym Berdea egitasmoak hiru urte bete ditu. Larrabetzun hasi zen 2016an eta iaz Zamudiora zabaldu zen. Proiektuak osasuna, zahartzte aktiboa, gizarteratzea eta lorezaintza ekologikoa uztartzen ditu. "Datorren urtea jende gazteagoa erakarri nahiko genuke", esan du Keko Alonso arduradunak.

Aurten, zortzi larrabetzuar ibili dira Gym Berdean, herriko berdegueak txukuntzen. "Guztira, 12 eremutan ibili gara lanean eta, besteak beste, parterreak sortu ditugu, baita fruta-arbolaz eta landare usaintsuz betetako eremuak ere". Proiektua aurten hasi da Zamudion; beraz, datozen urteotan Gym Berdea bertan finkatzea dute helburu. Lehenengo urte honetan, Alonsok eta bere sei laguntzaileek ibaibidea egin dute Kotxozulo aldean. "Bertatik ibiltzeko bidea baino, aisialdiaz gozatzeko eremua atondu nahi izan dugu. Hau da, jendea naturarekin harremanetan egoteko esparrua sortu, han irakurtzeko, piknika egiteko... Inguruan, erriberako basoa bultzatu nahi dugu, eta bide batez naturako esparru hori industriadetatik isolatu". Denboraren poderioz, egurrezko eserlekuak eta jartzeko asmoa dute, baita liburutegi txiki bat ere.

Gym Berdea urtarilaren 21ean ipiniko da berriro martxan Zamudion; eta otsailaren 8an, Larrabetzun. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko, 699 73 98 51 telefono zenbakira dei daiteke.

Tokiko merkataritzaren garrantzia, "Derio distingue" kanpainan

Merkatalgune handiek eta erosteko modu berriek kalte handia ekarri diote tokiko merkataritzari, eta denda txiki asko itxi dira. Gabonetako atarian gaude la, Deriocom elkarteak "Derio distingue" kanpaina ipini du abian, herriko merkataritza sustatzeko eta bere garrantzia azpimarratzeko. Horrela, bada, gogora ekarri dute, merkatalgune handiek eta onlineko erosketek ez bezala, tokiko dendek bezeroari espezializazioa eta tratu hurbila eskaintzen diotela. Era berean, giza balioak sustatzen dituzte eta komunitatea sortzen laguntzen dute. Adierazi dutenez, txorieritar guztiek oso hurbil eta eskura dituzte Derioko saltokiak: ondorioz, egunero kotasuna errazten diete eta euren beharritan ematen diete erantzuna. Horri lotuta, herritarrek animatu dituzte tokiko saltokiekin lotura estutza eta zero kilometroko erosketak egitera, erreferente bihurtzeko. Horrezaz gainera, gogorazi dute herriko merkataritzari lagundu

ezean hura galduko dela. Kanpainak Txorierriko garraioak ditu jarduera-eremu, eta bailarako 59 markesinatan kanpaina parte hartzen duten saltokiak iragarkiak ipini dira; saltoki bakoitza, markesina batean. Iragarkiak dendetan ere jarri dira.

Esther Apraiz Derioko alkatea ere izan zen kanpainaren aurkezpenean. Bere esanetan, udalak badaki herriko merkataritza ezinbestekoa dela, besteak beste, aberastasuna eta lana sortzen dituelako. Horregatik, garrantzitsutzat jotzen dute tokiko dendei laguntzea, dinamiza daitezzen eta lehiakorrak izan daitezzen. Horren harira, ekitaldian azpimarratu zuen Derioko merkataritzak balioak zituela: kalitatea, profesionaltasuna, tratu pertsonalizatua eta hurbiltasuna. Halaber, hurbileko merkataritzaren garrantziaz kontzientziatzea behar-beharrezkoa zela esan zuen, eta herritarrek animatu zituen Derion Gabonetan ez ezik urtearen gainerako egunetan ere erostera.



OAKLAND ENGLISH
LEHENDAKARI LEIZADLA PLAZA, 2
ZAMUDIO
946522857

PATXI KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabiztegiaren 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 946 122 037 | info@patxi.koop | www.patxi.koop

Peñasko arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Elkarrekin amets egiten: hurrengo urteetarako Tximintxen (eta derioztar euskaldunen) erronkak zehazten



t/a: Tximintx komunitatea

Urriaren 26a, Larrabari baserria, Derio. Hogei derioztar euskaldun, elkarrekin amets egiteko hitzorduarekin. Denetari-koak: gazteak, ez hain gazteak, esperientziadunak, horrelakoetan inoiz parte hartu bakoak, emakumeak, gizonezkoak, euskalduntzen ari direnak, euskararen aldeko hautua bizitzaren esparru guztietan egiten dutenak eta abar. Tximintx komunitateko lehen mugarrja jarri genuen egun horretan Mikeldi Zeberio emunkidearen laguntzaz eta gidaritzapean. Nitik abiatu ginen taldera eta handik Tximintxen proiektura. Eta projektutik ostera ere taldera, eta taldetik, jakina, nira. Joan eta etorriko bidaia egin genuen lau ordutan zehar.

Hamaika ideia marraztu genituen, hamaika amets, horietako batzuk nahikoa zehaztuta, ekintzetara eramateko asmoarekin. Derio euskaldunen ahalduztzea eta boteretzea jarri genuen helburu, prak-

tika berritzaileak eta diskurtso berrituak, eragitea eta egitea, kulturegintzan edo aisialdian, aukerak aprobetxatzearen garrantzia, derioztar euskaldunak bistaratzea eta abar.

Ondorio nagusia ateratzea gatxa da. Hala ere, badira aipatu daitezkeenak. Batetik, derioztar euskaldunen etorkizuna elkarrekin eta kolektiboki eraikitzeak dakarren ilusioa eta poztasuna. Bestetik, komunitatearen ideia abstraktua apurka-apurka edukiz betetzen ari gara. Hurrengo urteetarako baditugu proposamen zehatzak, komunikazioan, euskararen elikaduran eta abarretan. Eta orain ari gara horiek guztiak destilatzen, hiru urteko plan batera ekartzeko eta urtez urteko lehentasunak, ekin-tzak eta arduradunak fintzen eta doitzen.

Tximintxen zibak jarraitzen du biraka, oraingoan ere eta, gutxi barru, derioztar guztien eskuetan jarriko ditugu Ametsen Planetik ateratako ondorioak eta jardunbi-de zehatzak. Zibak jarrai dezala biraka.

Loiuko aurrekontua ia % 8 handitu da

Loiuko udalbatzak lau milioi euroko aurrekontua onartu du 2020rako; % 7,8 gehiago, aurreko ekitaldiaren aldean. Josu Andoni Begoña Loiuko alkatearen esanetan, aurrekontu koherentea, orekatua eta kaudimenduna da, eta Agintaldiko Plana gauzatzea du helburu. Plan horren harira, 10 esparru estrategikotan, udalak 210 egitasmo aurrera eramateko asmoa du. Aurrekontua aho batez onetsi dute.

Begoñak adierazi duenez, aurrekontuak loiztarren ongizatea du xede nagusizat. Horrela, bada, "gizarte-politiken alde egiten du" eta "gaur egun ditugun kalitateko zerbitzu publiko guztiak mantendu eta hobetzea ere badu ardatz". Era berean, erantzuna emango die herritarren eskaerei. Hamar arlo estrategikotan, gobernu-taldeak 210 proiektu jorrazteko asmoa du, eta, Begoñak adierazitakoaren arabera, 2020. urtean "Loiun inoiz egin den inbertsiorik handiena egingo dugu, bai kultura-arloan, bai hirigintza-arloan".

Besteak beste, Etxebizitza Plana garatzen jarraituko dute, eta Loiuko Antzokia altxatzeko lanak 2020. urtearen hasieran hasiko dira. Udal-kiroldegia ere egingo da eta Gaztegunea eta Ludoteka berrituko dira. Larrondoko umeentzako parkea estaliko da, eta bidegorria zabalduko da Zamarriparaino. Halaber, Tokiko Lehen Enplegu Plana ipiniko dute martxan, eta jarraipena emango diote herriko kultura eta gizarte dinamizatzeko plan estrategikoari. "Azpimarratu beharra dago kontuetan ez dagoela ez defizitrik, ez zorpetzerik", esan du Begoñak. "Gizarte-politikak, kalitatezko oinarritzko zerbitzuak mantentzea eta udalerriko ekonomia sustatzea lehenesten ditugu. Horrezaz gainera, Loiu Bizkaian ezagun egiten duten kultura-, kirol-, musika- eta gastronomia-ekitaldiak bultzatzen jarraituko dugu".

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralerara arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Ismene Pico, brontzea Espainiako Txapelketan

Gazteak brontzeko domina ekarri zuen Txorierrira, 59 kilo baino gehiagoko kadete kategorian. Pico Doyan Gimnasioan dabil eta talde horren babespean hartu zuen parte Estatuko kirol elkarten txapelketan. Txapela irabazteko, bost borroka irabazi behar ziren, baina 14 urteko derioztarrak laugarrenean egin zuen porrot, Cubelles taldeko Mariona Benito kataluniarraren kontra. "Oso borroka orekatua izan zen eta horregatik gaude apur bat etsita. Gainera, bere onena ez zuen erakutsi. Dena dela, Ismene etorkizun handiko borrokalaria da", esan digu Rosa Fraguas neskaren izekoak eta entrena-tzaileak. Taekwondolariak urte polita egin du. Uztailean, euskal selekzioa-ekin hartu zuen parte Espainiako txapelketan eta orduan ere hirugarren postuan bukatu zuen lehia.



Larrabetzu, auto klasikoan erakusleihoa

Larrabetzu Racing elkarteak auto klasikoan erakusketa antolatu zuen 11. aldiz abenduaren 15ean. Eguraldia lagun, plazan eta inguruetan 120 bat auto klasiko eta 30 bat motor batu ziren. Gipuzkoako baten bat egon zen arren, auto gehienak bizkaitarrak ziren eta, besteak beste, Bilbotik, Algortatik eta Urduñatik ailegatu ziren Larrabetzura. Txorierriko gainerako herrietatik etorritako autoak ere izan ziren bertan.

Erakusketaz gainera, ekintzak egon ziren goizean: ibilbidea alboko herrietatik, ekotalo-postua eta herriko musika taldearen emanaldia, Zintarritik hain zuzen ere. Antolatzaileak pozik azaldu ziren parte-hartzaileen eta publikoaren erantzunarekin. "Jende pilo bat bildu gara herrian eta oso giro ona egon da. Gainera, gurea urte amaieran dagoen autoen erakusketa bakarra da eta jendea gogo handiz etor-tzen da".



a: Idoia Andres

IRATXO
gazotegia
tarta pertsonalizatuak
brufak
leñak
pastelak
postak
Mikel Zurita, 2 - 3. lorja - Sondika, 48150 - 94 643 89 19

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TABERNA GAZTEDEI
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Enaitz
TABERNA
Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak
94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TXORIERRI Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
Korregandik gorta
AHOLKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALEROKETAK
SEGUROS BH. RAOREN AGENTZIA



Izaro Ungok brontzea lortu du Espainiako Boxeo Txapelketan

Ungo euskal selekzioarekin lehiatu zen Murtzian, eta brontzezko domina lortu zuen 60 kiloko junior kategorian. Hamabost urteko zamudioztarrak finalerdietan galdu zuen Fatima Zahrae murtziarraren aurka. Epaileek Zahraeri eman zioten garaipena, baina erabakia ez zen aho-batekoa izan. Horrek adierazten du euskaldunak eta murtziarrak lehia bizia eta orekatua izan zutela. Zahraek txapelketa irabazi zuen hurrengo egunean.

Bestalde, Javier Manrique derioztarrak ere hartu zuen parte txapelketan, 56 kiloko gazte mailan, baina ezin izan zuen Txorierrira dominarik ekarri. Hamazazpi urteko gazteak Fernando Dauiro Magdalena kanariarraren aurka borrokatu zuen. Lehia orekatua izan zen, hala ere, epaileek erabaki zuten garaipena kanariarrari ematea. Ungo zein Manrique Zamudiobox taldeko boxeolariak dira.



Euskara, ozen Derion

Euskararen Eguna Derion ospatu da aurten eta Txorierrri osoko euskaltzaleak batu ziren bertan antolatutako ekitaldietan. Azaroaren 25etik abenduaren 2ra bitartean, herritar guztientzako ekintzak egon ziren: umeentzako ikuskizunak, antzerkia, bertso-poteoa, talo tailerra eta Euskaraldiari lotutako kaleko ekintza. Euskara ozen eta argi entzun zen Derion.



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

ERREKA ONDO JATE ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 05

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelitzako doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

EH Bilduk eskatu du Eurokopa dela-eta aireportuaren ordutegia ez luzatzeko

Eurokopa ekainaren 15ean, 20an, 24an eta 28an izango da Bilbon, eta, komunikabide batzuetan iragarri dutenez, Bilboko Udalak eskatu du egun horietan aireportua gau osoan irekita egoteko. Horiek horrela, Txorierriko EH Bilduk eskatu du herritarren atsedenerako eskubidea errespetatzeko eta aireportuaren ordutegia ez luzatzeko. Halaber, udalerrietan mozioak aurkeztuko dituzte, "orain arte onartutako akordioak errespetatu daitezzen".

Txorierriko EH Bilduk adierazi du Bilboko Udalaren eskaera "Txorierriko biztanleen gutxieneko bizi-baldintzen kontrakoa" dela. Gainera, gogoratu du Loiuko aireportuan hegaldiak 06:45etik 00:55era izaten direla, eta, ondorioz, "txorierriar onartutako atsedenerako eskubidea bost ordu eta 55 minutukoa" dela. Alderdi abertzalearen ustez, aireportuaren gaur egungo zerbitzua nahikoa da. "UEFAk Bilbo egoitza izatea onartu zuenean, Loiuko aireportuaren ordutegia ere hartu zuen ontzat. Era berean, onartu zuen Loiuko eta Forondako aireportuen artean nahikoa zela jardunaldiak ekarriko lituzkeen joan-etorri erantzuteko, aireportuen zuzendariek adierazi zuten moduan".

EH Bilduk gaia eramango du Txorierriko udalbatzetara, "aireportuaren ordutegia ez luzatzeko eta, bide batez, orain arte aho betez egindako eskaerak errespetatu daitezzen". Gogora ekarri duenez, 2015ean aireportuaren ordutegia ez luzatzeko eskaria onartu zen udalerrietan. "Alderdi guztiok sinatu genuen eskera, EAJ barne".

Luzapen puntuala

Bestetik, Loiuko, Sondikako, Derioko, Zamudioko, Lezamako eta Erandioko

Loiuko, Sondikako, Derioko, Zamudioko, Lezamako eta Erandioko Udalek (EAJ), bestalde, adierazi dute ordutegiaren luzatzea ohiz kanpoko izango dela, kirol-ekitaldia Bilborako eta Bizkairako onuragarria izango baita.



Udalek ohar bat kaleratu dute batera. Horretan azaldu dutenez, Bilbo Eurokoparen egoitza izan zedin, UEFAk aireportuan gauean ere hegaldiak egoteko baldintza ipini zuen, eta, hori dela eta, alkateak erakunde hauetako ordezkariekin batu dira: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernuak ordezkariordetza, Loiuko aireportua eta Bilboko Udalak.

"Aireportuaren ordutegia San Mamesen partida egongo den hiru edo lan egunetan luzatzea puntuala izango da, kirol-ekitaldia ohiz kanpoko delako eta Bizkaia osorako onuragarria delako. Berdin-berdin egin zen Errugbiko Europako finalak izan zirenean", esan dute. Oharrean

adierazitakoaren arabera, aireportuaren zuzendaritzari eskatu diote Forondako aireportua 24 orduan erabiltzeari lehentasuna eman diezaiola. "Era berean, eskatu diogu ahalegin berezia egin dezala irteerak ohiz kanpoko hegaldietarako luza daitekeen ordutegi barruan egin daitezzen".

Jakinarazi dutenez, Bilboko Udalari ere egin diote eskaera: UEFArekin etorkizunean egingo diren batzar eta kontratuetan Forondako aireportua lehen aukeratzat har dezala hegazkina erabili behar duten futbolzaleentzat. Azkenik, Loiuko aireportuari dagokionez, herritarren eskubide eta interesen alde egiten jarraituko dutela adierazi dute.

**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txorien etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48150 Derio

Telefonoa eta bista
94 454 44 98
a.amondarain@euzkai.net

**Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku**

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Zerbitzu Berriak:
Logopedia
Podologia
Krimasajoa

Txorien etorbidea, 9 - Lortze Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com



Jose Antonio Perez | Loiuko saltsetako kapitaina

Jose Antoniok 20 urte daramatza su artean. Sukaldaritzak ikastaroak ematen ditu Loiun, eta bost urtean errezetarik errepikatu ez duela aitortu du harro. Klase bakoitzak ordu bi irauten du, eta, sukaldariaren esanetan, ikasleak deskonektatzera eta gozatzera joaten dira bertara. Abendu amaieran, chefak hainbat taldetako ikasleak batu ditu eta Gabonetako menua prestatzeko erronka bota die. Urtea hobeto bukatu daiteke?

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti / @jongoikouria

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA**

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

**BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA**



bai euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

t: Gaizka Eguzkitza / a: EITB

Mari Errauskin antzeztu da Sondikan. Zer nahiago duzu: ipuin jakin bat moldatzea ala zerbait berria sortzea?

Norberak egitea beti da hobe. Hala ere, moldaketa bat egiteak ere aukera hori ematen dizu. Testu jakin baten moldaketa egiten duzunean, zeurea egitea da kontua. *Mari Errauskin* antzezlan honetan ipuin klasikoa hartu dugu, eta gaur egunera ekarri. Gainera, gai batzuk jorratu ditugu: bullyinga, maitatzeko aniztasuna...

Eta umeentzat idaztea? Publiko erraza da?

Ez dago publiko errazik, denak zorrotzak baitira. Umeentzako zein helduentzako idaztea antzekoa da. Tira, hizkuntza ezberdina da, baina, azken batean, gauza bera da. Gizarteak, ordea, biak bereizten ditu, eta normalean garrantzi gutxiago ematen dio umeentzako sorkuntzari. Baita komediari ere. Eta horiek biak lantzen ditut nik normalean (kar, kar).

Ez da Glu-glu konpainiarako egin duzun antzezlan bakarra izan. Nolako harreman duzu haiekin?

Elkarlanean gabilta aspalditik. Batzuetan haiek proposatzen didate ideien bat; eta beste batzuetan, nik haiei. Elkarrekin hartzen ditugu erabakiak: bilera, afari eta *brainstorming* asko daude tartean (kar, kar).

Horretaz aparte, zeure konpainia duzu, Gilkitxaro.

Bai, nerabeak ginela, lagun batzuk Gilkitxaro taldea sortu genuen ikastolan. Anjel Zelaia idazlea eta gure irakaslea zenak animatu gintuen Arestiren testu batzuk taulartzera eta horrela sortu genuen taldea. Geroago, Deustuko gazte-txean batzen ginen eta jarraipena eman genion proiektuari. Hasierako talde-ide gehienek alde egin dute, baina Ane Zabalak eta biok jarraitzen dugu eta bikote artistikoa osatu dugu azken 10 urteotan. Oso gustura gabilta.

Zelan dabil taldea gaur egun?

Zoragarri, inoiz baino hobeto. Durangoko Azokan antzezlan berri bat estreinatu dugu, *ETAren agiri bulegoa*. Gainera, udaberrian, beste bat taularatuko

"Irratiak eta antzerkiak zerikusi handia dute"

GALDER PEREZ | antzerkigilea eta kazetaria

Abenduan, Glu-glu konpainiak *Mari Errauskin* ipuin klasikoa moldaketa aurkeztu zuen Sondikan. Galder Perez da bere egilea eta bera ezagutzeko aukera aprobetxatu dugu. Galder ezaguna da irratan urte asko eman duelako lanean, baina antzerkian ere badauka esperientzia.

"Normalean gizarteak garrantzi gutxiago ematen dio umeentzako sorkuntzari"

"Sariak politik dira, horien bidez zure lanak ikusgarritasuna lortzen duelako"



dugu: *Identitateak*, Lutxo Egiaren testua, hain zuzen ere.

Antzerkian aktore, zuzendari eta gidoilari ibili zara. Dena kontrolatzeko grina ala baliabide gutxi? Zer nahiago duzu?

Antzerkia Euskal Herrian oso txikia da, eta, horregatik, egoerak behartuta gauza gehiegi kontrolatu behar dituzu. Baina pozik nago, garai batean antzerkitik bizi izan nintzen eta oso zorionsua izan nintzen. Baina gauza asko egin behar gientuen bizirauteko eta denetik ikasten duzu.

Hainbeste gauza egin eta gero, zer ogibide jasotzen du zure nortasun agiriak: aktorea, zuzendaria...?

(Kar, kar) Gaur egun, antzerkigilea eta kazetaria. *Teatrero* hitza politagoa da eta agian euskaraz "antzerkilari" hitzaren antzekoa da.

Sari batzuk jaso dituzu. Zelan hartzen dituzu sariak?

Politak dira, zure lana ontzat hartzen dutelako, ze-



lan ez. Horiei esker ate batzuk zabaltzen zaizkizu eta, garrantzitsuena, zure lanak ikusgarritasuna lortzen du.

Irratia ere aipatu behar dugu. Antzerkiarekin badauka zerikusirik?

Bai, irratiak eta antzerkiak zerikusi handia dute: mikrofonoaren aurrean zein taulen gainean egotea antzekoa da. Agian salbuespena albiste-saioak dira. Irratiko lankideak ez dira jakitun egongo, behar-bada, baina denok mikrofonoaren aurrean jartzen garenean, jarrera zehatz bat dugu, hau da, pertsonaia bat aukeratzeko dugu. Era berean, irradian sormena oso garrantzitsua da. Eta noski, antzerkia eta irratia komunikazioa dira. Antzerkian ikasi ditudan hainbat gauza oso baliagarriak izan dira irradian. Batak bestea elikatzen duela esango nuke. Biak izan dira afizioa eta ofizioa.

Antzerkigintza eta irratiaren artean

Galder Perezek (Bilbo, 1975) saltsa guztietako gatzak eta piperra ematen du, eta hori hartutako hezkuntzak eta egindako ibilbideak ere uzten dute agerian. Izan ere, Kazetaritza amaitu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioan Aditu Titulua lortu zuen Mondragon Unibertsitatean. Gainera, Arte Dramatikoko Diploma atera zuen Musika, Antzerkia eta Dantza Bilboko eskolan (Artebi). Ez da harritzekoa, beraz, kazetari, gidoilari, zuzendari eta aktore lan egitea.

Ziur asko, jendeak irratiarengatik ezagutuko du Galder. Gaur egun *Graffiti* saioa zuzentzen du arratsaldero Radio Euskadin. Era berean, esperientzia handia dauka antzerkigintzan. 1993an Gilkitxaro taldea sortu zuen eta, horren eskutik, hainbat ikuskizunetan hartu du parte. Beste kolaborazio batzuk ere egiten ditu, esate baterako, Sondikara ekarri duten *Mari Errauskin* Glu-glu konpainiarekin batera. Antzerkigintzan orain arte egindako lana dela-eta, sari batzuk lortu ditu eta birritan proposatu dute Max sarietarako.





“Aurrera lantaldeak eroaten zaitu”

MAIALEN OLABARRIETA RODRIGUEZ |
arraunlaria

Zamudioztarra kirolzalea da txikitatik, baina bakarka egin ohi eban: igeri egitea, mendira joatea, zaldiz ibiltzea... Talde-kirola Estatu Batuetan ezagutu eban sakon, Keene herrian (New York) emondako denporaldian. Etxera itzuli zanean, argi izan eban talde-kirola egiten jarraitu gura ebala, eta, aukera batzuk aztertu ondoren, arraunketan ahalegintzea erabagi eban. Gaur egun Deustu Arraun Taldeko arraunlaria da.

t: Itxaso Marina Ondarroa

“Igaz hasi nintzan arraunketan. Zergatik Deustun? Bada, klubaren gainean eretxi onak entzunda izateaz gainera, etxetik hurbil dagoalako. Udan gurasoakaz joan nintzan instalazinoak ikustera eta baldintzak-eta ezagutzera eta izena emon neban”, azaldu deusku. Hamazazpi urte dauzan arren, eta ondorioz gazte mailan egon beharko baleu be, senior mailan dabil klubaren beharizanengaitik. “Tal-de-lana oso garrantzitsua da arraunketan, trainerua zuk bakarrik mugitzea ezinezkoa dalako: aurrera lantaldeak eroaten zaitu. Era berean, taldekideakaz denpora asko pasatzen dozu eta, beraz, hurbiltasuna sentitzen dozu”.

Traineru-denporaldia ekainean hasten da eta entrenamentua data horri begira planifikatzen da. “Orain, astean bost egunetan entrenatzen dogu; gero, sei egun. Aste barruan gimnasioan ibiltzen gara, eta barikuetan eta zapatuetan uretara urtetan dogu. Hilek aurrera egin ahala, joango gara gimnasio orduak kentzen eta uretara sarritan urtetan. Akabuan, udan, entrenamentu modu hau izango dogu: as-teko egun batean gimnasiora, hurrengoan



atsedenaldia eta gainerakoetan uretara. Gogorra da, baina zeozer gustetan jatzu-nean ez deritxazu hain gogorra danik”. Zezeiletik maiatzera bitartean batel-denporaldia izango da, eta gero, trainerillena. Olabarrietak oraindino ez daki horreetan parte hartuko dauan: erabagia klubak hartuko dau.

Azken denboraldian, Deustu Arraun Taldea hirugarrena lotu zan ETE ligan (Emakumeen Traineru Elkarte). “Egia esan, ni ez nintzan askorik lehiatu, hasibarra nintzalako, baina oso esperientzia ona izan zan. Bestalde, nahiz eta estropada



baten parte hartu ez, gainerako taldekideei laguntzen neutsen presteta-lanakaz eta prest egon behar neban, inork mina hartzen baeban be, bere ordeztarraunean egiteko. Orduan zure taldeak irabazi edo ez irabazi adrenalina sentitzen dozu”. Zamudioztarrak Pasaiaiko, Donostiako eta Lekeitioko estropadetan hartu eban parte. “Zirrara handia sentidu neban eta hasieran oso urduri ibili nintzan. Arraunean zabilzanean adrenalina asko sentitzen dozu, eta gero apurtu-apurtuta amaitzen dozu. Pozik nago egindakoagaz”.

*"Arraunketea
gogorra da, baina
zeozer gustetan
jatzunean ez deritxazu
hain gogorra danik"*

*"Zure taldeak
irabazi edo ez
irabazi adrenalina
sentitzen dozu"*

Burukatu behar

Bere esanetan, taldeak hobetzea du helburu datorren denporaldiari begira, eta horretarako alderdi batzuk hobetu beharko dabez. Modu berean, aitatu dau arraunketan gero eta emakume gehiago sartzen dirala eta, hortaz, maila gero eta altuagoa dala. "Burukatu behar da". Komunikabideek be kasu handiagoa egiten jabilkoiz emakumeen kirolari aspaldi honetan, arraunketea barne, eta hori pozgarria da, bere eretxiz. "Afizinoak, berriz, kasu gehiago egiten deusez gizonen, emakumeen talde askok esfortzu eta inplikazio bera izan arren". Deustuko klubak nesken alde egiten dauala esan deusku. "Esaterako, nutrizionista bat ipini deuskue eta traineruari behar moduko mantenimentua egiten deusie".

Gazteak arin hartu dau arraun egiteko teknika. "Aurka-aurka joaten da indarra hartzen eta teknika hobetzen. Dana dala, esan deuste zortzi urte behar dirala arraunlari osoa izateko. Ahalegindu behar da". Helburu zehatzik ez badau be, arraunketan ahal izan arte jarraitu gura dau eta erabagiak eginean-eginean hartuko dauz. "Arraunketea asko gustetan jat eta ondo pasatzen dot". Lagunak egoteko denpora kentzen deusio eta elikadura jagon behar dau. Udan be ezin da oporretara joan. Halanda be, atsotitzak dinonez, gogoko tokian aldaparik ez. "Joan dan udan, adibidez, ez nintzan bakarrik entrenatzen ibili; Euskal Herri osoko kostaldetik ibili nintzan taldekoakaz eta ondo pasatu neban".

Kirola eta ingelesa

Maialen Olabarrieta Batxilergo-ko bigarren mailan dabil eta Ingeles filologia ikastea gustauko litxaio. Irlandan egona da eta orain urte bi Estatu Batuetara joan zan ingeles-maila hobetzeri. "Herri txiki baten izan nintzan, Keenen (New York), neuk halan aukeratuta, eta oso ondo egon nintzan: lagun pilo bat egin neban bertan, eta bigarren familia". Azaldu deuskunez, maila akademiko baxuagoa da Estatu Batuetan, eta horregaitik, nahiz eta berton DBHko laugarren mailan egon, han Batxilergoko lehen maila egin behar izan eban. "Aukera asko dabez eskola ostean kirola doan egiteko. Garrantzi handia emoten deusie kirolari, eta onenek bekea jasotzen dabe unibersidadean ikasteko, oso garestia da eta". Zamudioztarrak saskibaloian, futboleko eta softball-ean jokatu eban han izan zan bitartean.

Bere esanetan, ikasgai antzekoak doguz han eta hemen, baina Estatu Batuetan eskola berezietara joateko aukerea eskaintzen jake notak hobetu gura dabezan ikasleei. "Gazteak 14 urte-gaz gidatzen dabe. Hotz handia dago, eta aisialdia etxean emoten genduan sukaldatzen, pelikulak ikusten edo berba egiten. Lagunen etxera be joaten ginan, zinemara edo eskiatzera... Asteburuetan be partiduko egozan".

Ohitura ezbardinetara egokitu behar izan eban, baina oso gustura ibili zan bertako familiagaz. "Oso esperientzia polita eta baliagarria izan da. Izan ere, familiagaz ondo moldatu arren, ez nebazan arazo guztiak hareekin partekatzen, amagaz eta aitagaz egingo neban moduan; ondorioz, gauza asko nik neuk konpondu behar izan nebazan. Askok ikasi dot: bizitzaz eta, jakina, ingelesa".



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Laralde Heziketa eta Irigarren Ikaskuntzako Ikastetxea
Unibertsitate Itxas Kalea, 1
48180 - DERIO
Tel.: 94 403 40 60 | Fax: 94 403 40 61 | info@txorierri.net
www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Gabonetako mezuak, ederto batean



Egunean-egunean hainbat mezu zabaltzen ditugu Whatsapparean, emailaren edo Twitterren bidez, baina Gabonetan, bihotza samurtuta nonbait, ohi baino mezu gozo gehiago bidaltzen dugu.

Halakoetan, han eta hemen, "Zorionak!" irakurtzen dugu sarritan, baina forma berri horrek baino tradizio luzeagoa dute "Urte berri on!", "Eguberri on!" eta antzekoek. Kontua da gaztelaniazko "Feliz Navidad" horren hitzez hitzeko itzul-

pena zabaldu dela (Gabon zoriontsuak!), eta orain geure betiko esaerak ximplegiak iruditzen zaizkigu. Zorionzaleak bagara, beste aukera batzuk ere badaude, esaterako, "Eguberri on eta urte zoriontsua izan dezazuela!". Txorierrin "Gabonak" esaten diogu urteko garai honi, beste leku batzuetan, berriz, "Eguberriak".

Erljioari eta sasoi jakin bati loturiko egunak direnez gero, letra larriz edo maiuskulaz idatziko ditugu: Eguberri

eguna, Gabon eguna, Gabon zaharra, Urtezahar gaua...

Abenduaren 24ari Gabon eguna esaten zaio, eta gehienok Gabon gauean batuko gara familia giroan afari berezia egiteko. Biharamunari, berriz, Natibitate eguna esaten zaio gure artean, baina beste era batera ere bai: Eguberri eguna.

Urteko azken eguna San Silvestre da, eta egun horri Gabon zahar eguna ('Gabonzahar', bizkaieraz) esaten diogu gure artean; beste batzuek Urtezahar eguna esaten diote. Eta biharamunari Urteberri edo Urteberri eguna esaten diogu. Sasoi batean gaur egun baino ohikoagoa zen ume eta gazteak eskean ikustea etxerik etxe: "Urtebarri, txarri-belarri / daukanak ez daukanari / nik ez daukat eta niri..."

Baina Gabonak ez dira hor amaitzen, Erregetan amaitzen dira (Erregen-bezpera eta Erregen eguna). Bizkaieraz, hala ere esaten zaion arren, batuak dagoeneko ia erabat zabaldu ditu Errege-bezpera eta Errege eguna formak.

Modu batera edo bestera, aurten ere maitasun mezuak bidaliko dizkiogu elkarrri. Bai, egia da, urte osoan egin beharko genuke hori, baina inoiz ez baino lantzean behin hobe, ezta?

Ondo amaitu urtea eta hobeto hasi!

Gabonetan? Jostailu ez-sexistak!

Haurren nortasuna jolasen bidez eratzten da pixkanaka, jokabide-ereduak eta portaerak haienganatzen dituzte eta besteekin harremanak izaten ikasten dute. Horrenbestez, jolasak baliagarriak dira etorkizuneko jokabide sexistak saihesteko, haurrei askotariko jostailuekin jolasteko aukera ematen baldin badiegu.

Horrexegatik, Gabonetan haurrentzako jostailuak erosterakoan, hauek izan kontuan:

- Ez dago neska edo mutilentzako jostailurik, ezta kolorerik ere.
- Haurrekin hitz egin behar dugu estereotipoen buruz, eta azaldu behar diegu ez dagoela sexu batentzako edo bestearentzako jostailurik.

• Neskak eta mutilak batera jolastea eta espazioak partekatzea –batez ere etxeak– ahalbidetzen duten jostailuak aukeratu behar ditugu.

• Haur bakoitzaren gaitasunak sustatzen lagundu behar dugu.

• Enpatiarene eta sentimenduen garapena indartzen duten jostailuak erosi behar ditugu.

• Nahi dutena egin dezaketela irakatsi behar diegu haurrei, generoa kontuan izan gabe.

• Txikienekin batera jostailuak aukeratzeko orduan dituzten lehentasunei buruz hausnartu behar dugu.

• Lankidetzak eta talde-lana sustatu behar ditugu jolasetan.





Esparru akademiko- profesionalean gazteak orientatzeko jardunaldia

Azaroaren 19an, 50 familiak baino gehiagok hartu zuten parte esparru akademiko-profesionalean gazteak orientatzeko Txorierriko bigarren jardunaldian, Derioko Kultur Birikan. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, EGAZ Txorierriko eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ekimena izan zen, "Ezagutu aukeratzeko" programaren barnean, eta Politeknika Ikastegiarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan. Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen gurasoei zuzenduta egon zen,

seme-alabei lagun ziezaieten ikasketak edo ibilbide profesionalak aukeratzen.

Horretarako, inguruko ikastegietako profesionalak batu ziren Derion, eta Txorierri eta Euskadin dagoen goi-malako ikasketen eskaintzaren berri eman zuten. Hala, jardunaldian parte hartu zuten Txorierriko Politeknika Ikastegiko koordinatzaile pedagogikoak, José Manuel Tubiok; Ainhoa Saenz orientatzaileak; Bilboko Ingeniaritza eskolako Jokin Gorozikak, eta EGAZ Txorierriko zuzendariak, Alex Loustaunauk.

GUROT jolasaren zozketan, lezamar bat irabazle

GUROT! euskal galderen unibertsuaren jolas interaktiboa, 12-17 urteko gazteentzat sortutakoa, Txorierri etorri zaigu sariekin, Lezamara hain zuzen ere. Jolasean parte hartzen duten bizkaitarren artean, zozketa bat egin da eta Maialen Monasterio izan da irabazlea: *escape room* batera joateko sei sarrera irabazi ditu. Sari-banaketa abenduaren 3an izan zen Txorierriko Mankomunitatean, eta saria Mankomunitateko euskara arduraduna eta Lezamako alkatea den Jon Ander Aurrekoe-txeak eman zion. Zorionak Maialen!



KAISHOP!, denda txikiak eta euskara batzen dituen egitasmoa

Txorierriko Mankomunitateak merkataritza txikia eta euskarazko kontsumoa bultzatzeko beharra ikusi du, eta, Bizkaiko beste hainbat udalerrirekin batera, bezeroak ere inplikatzeko eta kontzientziatzeko kanpaina bat egin du: KAISHOP! Kanpainak euskarazko hainbat spot erabiltzen ditu, eta, inolako gidoirik gabe eta umorea erabilita, bertan bezeroek agerian uzten dituzte Alexak, Sirik,

KAISHOP!

OK Googlek eta gainerako tramankuluek erosketa birtualak egiteko dituzten hutsuneak. Bideoaren grabaketan parte hartu duten bost boluntarioen artean Gaizka Garitano Athleticeko entrenatzailea dago.

Spota hainbat hedabidetan eta sare sozialetan zabaldu da. Hona hemen lotura: <https://bit.ly/2YEdTbd>. Lagundu gaitzazu bideoa zabaltzen.

Egunerokoan plastiko gutxiago sortzeko aukerak

- Kotoizko eta zelulosazko baie-tak (plastikotik eta petroliotik eratorritakorik gabekoak)
- Elikagaietarako bilgarri berre-rabilgarriak, erle-argizariz, landare-argizariz, kotoi organikoz edo jojoba-olioz egindakoak
- Landare-belakiak, luffazko esfoliatzaileak eta espartzuak
- Banbu organikoz eginiko tirta biodegradagarriak

Herioa oholtzan

Urtarrilean, Mungialdeko Antzerkizale Elkarteak (MAE) *Herioagaz dantzan* antzezlanana ekarriko dau Txorierrira. Emonaldia urtarrilaren 25ean, 19:30ean, izango da Baserri Antzokian. Mila Goikoetxea eta Jon Kepa Zumalde MAE-ren aktorea eta zuzendaria dira hurrenez hurren, eta eurakaz antzezlanaren nahiz taldearen gakoak izan doguz hizpide.

t: Itxaso Marina Ondarroa /a: MAE

MAEk 13 egoera proposatzen deuskuz *Herioagaz dantzan* antzezlanean, eta horreetan guztietan heriotzea da ardatz nagusia. Norbait hiltzeaz dago; beste norbait hil da eta ingurukoak beraren ganean dabilz berbetan; zelan esan agur... Ezusteko heriotzea da batzutan; mingarria, beste batzutan; bizitzearen beste parte da guztietan... "Herioa zerbait txarra eta iluna dan ustea dogu, eta idea horren kontra egin gura izan dogu. Izan be, bizitzearen bukaerea dan arren, heriotzea bizitzearen parte be bada". Horregaitik, antzezlanean heriotzea zuriz jantzita azaltzen da, alai eta dantzan. "Azken baten, bera ez da hiltzen gaituena, eroaten gaituena baino". Oso momentu hunkigarriak agertzen dira antzezlanean, baina hori ironiaz eta umorez be jantzi dabe. "Senidea edo laguna hil ondoko dolua gainditu behar dogu eta, jakina, hasieran triste izango gara; halanda be, denporeak aurrera egin ahala, persona hori modu positiboan gogoratu dogu eta ez da bakarrik mina egongo".

Baserri Antzokiaren oholtza gainean 14 lagun ibiliko dira, eta ahalegina egingo dabe norbanako bakotxarentzat heriotzea zer dan adierazoteko. "Ganerako antzezlanetan gai serioak jorratu badoguz be, umorezko lanak izan dira, eta oraingo honetan erregistroa aldatu behar izana

gatxa izan da, gure sentimenduak azaleratu behar izan doguzalako. Dana dala, eta egia esan, gure antzezlanetan –eta *Herioagaz dantzan* ikuskizunean be– beti dagoz barre egiteko momentuak, ikusleek ezin dabelako ordubete pasatxo oso istorio sakon baten murgilduta emon; nasaitzeko tartetxua behar dabe".

Antzerki taldeak udal-ikastaroetan dau jatorria. "Lehen 1990ean antolatua zan. Ondoren, beste ikastaro batzuk egin ziran eta 2008an udalari eskatu geuntsan ikastaroa barriro antolatzeko. Baietz erantzun euskun eta Jon Kepagaz ipini ginan harremanetan taldea berak zuzentzeko. Baina ezin ginen beti ikastaroen menpe egon, eta akabuan alkartea sortzea erabagi genduan erabagiak geuk hartzeko, gura genduan moduan eta epeetan. Alkartea 2011n eratu zan ofizialki", azaldu dau Goikoetxeak.

Zumaldek eskarmentu handia dau antzerki munduan, Markeliñe antzerki taldearen partaidea da-eta. Bera izan ezean, beste guztiak zaletuak dira. "Batzuk urteak daroez antzeztan eta beste batzuk nagusitan hasi dira antzerkigintzan. Dana dala, guztiak datoz entseguetara gogotsu eta maila handia erakusten dabe agertokian. Horrek betetzen gaitu talde moduan", esan deusku Zumaldek. "Ganera, edozein gauza egiteko prest dagoz, gauza barriak probatzeko prest. Eta pitika-pitika ikusten



dabe ahalmen handia dabela agertokian gauzak kontatzeko eta edozein gauza antzezteko gai dirala. Ausardia handia dabe. Egia da bakotzak bere erregistroa dauela, baina guztiak dira garrantzitsuak talderako".

Gorputza adierazoteko

Urte honeetan 20 antzezlan egin dabez; *Telesforo ez da Bogart, Ama sena, Olalde museoa* eta *Euskaratzen*, euren artean. Era berean, film labur bat egin dabe erabagiteko eskubidearen alde, eta *Zerutik sua dator* dokumentalean hartu eben parte. Inprobizazioan oinarritzen dira antzezlanak montatzeko: zuzendariak gai

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postres
ogia
edaria **9€**

T: 94 454 55 55
Bestorene 5, Behea
48160 DERIO

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OBELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTEA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 08
Fax 94 454 14 18

Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO



bat proposatzen dau eta aktoreek gaiak burura ekarten deitsena islatzen dabe oholztan; lan horren emaitza jaso ostean, Zumaldek itxurea emoten deitsio antzezlanari. "Oso estetika berezia dogu, atrezzo gitxi erabiltzen dogu, garrantzia batez be gorputzaren bidez adierazoteari emoten deitsagu eta. Horretarako, barneko lan handia egin beharra dago: sentimenduak azaleratu behar dira, publikoak ulertu dagian. Bestalde, dantza, zuzeneko musika eta objektuak erabiltzen doguz ikuskizunetan, eta horrek teknika handia eta entsegu asko eskatzen deusku. Halanda be, gura geunkena baino entsegu gitxiago egiten dogu. Testu gitxi

*"Erregistroa aldatu
behar izana gatxa izan
da, gure sentimenduak
azaleratu behar
izan doguzalako"*

*"Oso estetika berezia
dogu eta garrantzia
batez be gorputzaren
bidez adierazoteari
emoten deitsagu"*

*"Herriko bizitza,
antzerkirako zaletasuna
eta euskerea bultzatzea
doguz helburu"*

be erabiltzen dogu antzezlanetan, eta ahalegintzen gara horren ondorioz galdu leitekezan ñabardurak gorputzaren, musikaren eta argiztapenaren bitartez adierazoten".

MAEk 40 bazkide dauz, eta antzezlanen ganera, Mungian antolatzen diran ganerako ekitaldietan be hartzen dabe parte, esaterako Lore-jokoetan. "Ehun urte atzera egiten dogu urriaren azken asteburuan, eta ekintzetan 100 lagun baino gehiago ibiltzen gara". Herriko beste alkarleakaz be egiten dabe alkarlana, musika eskolagaz kasu, eta Kontu Kontari saioa eta antzerki-foruma prestatzen dabez. "Herriko bizitza, antzerkirako zaletasuna eta euskerea bultzatzea doguz helburu; gure lana jente-aurrean erakustea eta gure zaletasuna herriarrei nolabait kutsatzea. Halaber, jenteak antzerkiko hainbat esparrutara hurbiltzeko aukera izatea gura dogu". Eta hori dala eta, beso zabalik hartzen dabe antzerkian lehen urratsak emon gura dauen edonor. "Lekua egiten deusegu berehala". Oihala igo daitela, beraz.



Trikitia eta musika zoriontasun

XABI ABURRUZAGA | trikitilaria

Xabi Aburruzaga trikitilariak bosgarren lana kaleratu berri du: *Bost*. Trikitia ardatza dela, folk musikariak azken urteotako bizipenak doinu bilakatu ditu disko horretan. Iñaki Aurrekoetxeak CDaren barruko liburu txikian idatzi duenez, "zentzumen oro gozarazteko moduko soinuak dakartza bosgarrenak". Xabi's Road Zamudioko estudioan, solasaldi ederra izan dugu Aburruzagarekin lan berriari eta bere ibilbideari buruz.

t: Itxaso Marina /a: Asier Bastida

Trikitilariak azaroan aurkeztu zuen *Bost* lana Bilboko Kafe Antzokian. Bere bandako musikariek lagundu zioten ohol-tza gainean –Aitor Uribarri, perkusio-jotzailea; Eriz Perez, gitarra akustiko-jotzailea; Jon Cañaveras, kontrabaxista; eta Koldo Uriarte, teklatu-jotzailea–, baita Tanxugueiras Galiziako hirukoteko pandero-jotzaileek eta Argibel Euba eta Iñigo Olazabal txalapartariak ere. Kontzertuari ikasleekin batera eman zion amaiera bikaina; gehienak, zamudioztarrak. Disko berria atera osteko lehenengo emanaldiak korapilatsuak izan ohi dira, zuzeneko ere lantzeko beharra baitago, baina Aburruzaga pozik irten zen antzokitik, bai eskainitako musika-ikuskizunagatik, bai publikoaren aldetik jasotako beroagatik.

Bere bosgarren lana izateaz gainera, barnerako bidaia da *Bost* diskoa. Horretan, azken urte bi eta erdiko bizipenak kontatzen ditu, eta azken urteotako bidaiek eragindako hausnarketak ere bihurtu ditu doinu. "Oso disko pertsonala irten da konturatu gabe", azaldu du. Lana 14 abestik osatzen dute eta, besteak beste, aitita-amamen herrira egindako bidaien oroitzapenak ("Bilbao-La Robla" eta "Waltz for Velilla") eta Quebecen ("Reel québécoise"), Galizian ("Meigas") eta Palestinan ("Non da Palestina?" eta "Nadirren giltza") izandako esperientzia eraman ditu hara. Omenaldiak ere badaude diskoan: euskal diasporari ("Zortzi jauzi"), bere trikitilari-maisuei ("88ko txapelketa") eta lagun minaren aitari ("Irumugarrieta 2.0"); eta semeari eskainitako abestia ("Izei"). Usadio zaharrei eutsita, urtero joaten da Mekoletara hainbat lagunekin –Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Josu Zabala, tartean–, eta plaza horretako momentuak jaso ditu izen

*"Oso disko
pertsonala irten
da konturatu
gabe"*

*"Bost ez da
bakarrik nire lana,
diskoan parte
hartu duten
guztiena baizik"*

*"Rufino Arrola oso
pertsona inportantea
izan da niretzat,
lehenengo trikitia
berari erosi nion eta"*

bereko abestian. Gainera, bideoklipa grabatu du "Atxarre" kanturako eta bosteko erritmoa erabiltzera ausartu da lanari izena ipintzen dion abestian. "Hauspoaren infernutik" piezak kutsu klasikoa du, baina trikitilariaren eta bere bandaren ukituarekin.

Bata bestearen atzetik aipatu dizkigu diskoan parte hartu duten musikari guztiak; Euskal Herrikoak, Estatutakoak zein nazioartekoak. Horien artean, hauek daude: Yves Lambert kanadarra, hasieran esandako Tanxugueiras, Calum Stewart eskoziarra, Mikel Markez, Andrea Bidart eta Voices From Boise taldea. Bestalde, bost abestik

letra dute eta egileak hauek izan dira: Unai Iturriaga ("Mekoleta"), Iñaki Aurrekoetxea ("Meigas", "Non da Palestina?" eta "Zortzi jauzi") eta Miren Amuriza ("Nadirren giltza"). "Xabi Aburruzaga dakarren arren, hau ez da bakarrik nire lana, diskoan parte hartu duten guztiena baizik. Zintzotasunez jokatu behar da: jende askoren lana izan da beharrezkoa emaitza hau lortzeko, teknikariena ere bai". Diskoa Xabi's Road estudioan, Zamudion, grabatu da eta Dublineko Masterlabs estudioan masterizatu da. CD fisikoari balio gehigarria emateko, eskuz egindako marrazkiez apaindu da barruko koaderno txikia.

Folk-usaina

Bizkaiko Trikitixa (2007) Aburruzagaren lehen lana izan zen. Gure lurraldeko trikitilari zaharren piezen zatiak hartu, eta bere estilora moldatu zituen diskoan. "Aupa Rufino" Rufino Arrolaren omenez egindako kanta ere sartu zuen. "Oso pertsona inportantea izan da niretzat, nire lehenengo trikitia berari erosi nion eta". *Denboraren naufrago* lana handik urte bira eman zuen argitara. "Nik neuk konposatutako kantak daude bigarren lan horretan eta, esaterako, Mikel Markezek eta Oreka Tx taldeak kolaboratu zuten. Folk ezagutzen hasi nintzen, baina artean nire estiloa zein zen jakin barik. Hirugarren diskoan, *Geure* (2013), estilo zehatz batera jo genuen: etnikoagoa, kontrabaxua, biolina... eta folk-usaina antzematen hasi zen; trikitiaren espiritua galdu gabe, ordea". Lanak oso harrera ona izan zuen Estatuan eta atzerriar bidaiaitzeko aukera etorri zen. Era berean, Ortigueirako Nazioarteko Jaialdian irabazle izan ziren. "Estiloa erabat aldatu genuen *Keltik* diskoan (2016). Galiziarrek, asturiarrak eta kantabriarrak zeltak dira; gu, ez. Hala ere, Euskal Herrian



moduan, herri horietan ere pandero-jole asko daude eta hor lotura bat dugu. Hori dela eta, oso gertu sentitzen naiz kultura zeltatik". *Keltik* lanean Eskoziako, Bretainiako, Irlandako, Galiziako eta Asturiaseko musikariek hartu zuten parte, eta diskoak musika zeltaren munduko jaialdietako ateak zabaltu zizkien; adibidez, Celtic Connections jaialdikoak.

Beraz, euskal sustraian oinarrituta, erakutsi du trikitia beste kultura batzuetako soinuekin uztartu daitekeela. "Oso harro nago euskalduna izateaz eta trikitia asko maite dut; nolahi ere, 2019. urtea amaitzean dago eta uste dut istorio berriak kontatu behar direla. Instrumentua garatu da eta, aspaldian erakutsi denez, oso ondo uztartzen da rockarekin, jazzarekin, folkarekin, dj erritmoarekin... Euskal marka ere bilakatu da". Tradizioak zein modernitateak lekua dute Aburruzagaren lanean. "Tradizioa, jakiteko nondik gatozen; alabaina, artista asko daude gaur egun: Kepa Junkera, Joseba Tapia, Xabi Solano, Alaitz eta Maider... eta horiek dira egungo ispi-luak trikiti munduan. Gero, nik ispi-lu asko ditut —La Bottine Souriante, kasurako,

"Harro nago euskalduna izateaz eta trikitia asko maite dut, baina istorio berriak kontatu behar dira"

nire talde kutunenatariko bat da—, eta ederra da norberaren musika eta kultura beste herri batzuetakoekin elkartzea". Horri lotuta, *Bost* oso disko globala eta zabala dela adierazi du. "Herri askotan oin hartu dugu azken lana egiteko, eta gustatuko litzaidake herri horietara itzultzea eta hangoei erakustea niretzat zer den euren herria".

Hegan egin

Zazpi urte zituela solfeoa ikasteari ekin zion, etxeko giroak kutsatuta. Esku-soinua jotzen zuen kontserbatorioan, eta instrumentuarekin ondo moldatzen zen arren, gaizki konpontzen zen eskoletako zorroztasunarekin. "Niri trikitiaren soinua

"Naizen modukoa izaten uzteaz gainera, trikitiak egundoko askatasuna ematen dit sortzeko"

gustatzen zitzaidan benetan eta, partiturari jarraitu gabe, entzunez jotzea. Kartzelan bezala sentitzen nintzen: gozatzen nuen, musika maite nuelako, baina ezin nuen hegan egin". Aitari alamera eman ostean, hark trikitia erostea lortu zuen 12 urterekin. "Rufinori galdetu nion ea partituraren bat zuen eta harrituta begiratu zidan: *Zer diozu? Zer partitura eta zer arraiol!*". Ekinaren ekinez eta ikertuz bere lekua topatu du trikitiaren munduan. "Naizen modukoa izaten uzten didan instrumentua da eta egundoko askatasuna ematen dit sortzeko. Egia da muga batzuk ditugula, nota batzuk ezin direlako jo, baina bideak topatu behar ditugu muga horiek gainditzeko". Irakasle Iñaki Zabaleta, Imuntzo,



"Talde modernoek iraultza ekarri dute trikitira eta erakutsi dute gauza berriak egin daitezkeela"

Kepa Junkera eta Joseba Tapia izan ditu. "Nahiz eta guztiengandik asko ikasi dudan, bereziki Kepa eta Joseba azpimarraituko nituzke. Oso irakasle eskuzabalak izan ziren eta, gainera, ekarpen itzela egin diote trikitiari: hainbat disko, pieza, ekarpen... Kepa jaialdi askoan egona da eta trikitia berari esker da munduan ezaguna. Asko dugu biei eskertzeko. Eta jakina, trikitilari zahar asko ere aipatuko nituzke, baita gaur egun modan dauden taldeak ere. Talde modernoek iraultza ekarri dute trikitira eta erakutsi dute gauza berriak egin daitezkeela".

Aburruzagak trikiti eskola ere ematen du; irakasle 20 urte baino gehiago daramatza. "Herri askotan ibilia naiz: Getxon,

Zamudiotartua

Xabi Aburruzaga (Portugaleta, 1978) 22 urte zituela etorri zen Txorierrira. Etxebizitza Zamudion erosi zuen eta bertan ipini zituen martxan grabazio-estudioa eta Trikileku eskola. Gaur egun Sopelan bizi den arren, jarraitzen du estudioa zein eskola Zamudion izaten. "Hamaika urte eman ditut bertan eta oso gustura egon naiz. Neure txokoa da: bakea, euskaraz bizitzeko aukera, paisaia ederra... Dena dela, egia

Bilbon, Urdulizen, Portugaleten... Gaur egun, berriz, bakarrik Zamudion ematen dut eskola, astean hiru egunetan, musikagintzari denbora gehiago eskaini nahi diodalako". Denboraren poderioz metodo propioa garatu eta material asko sortu du. YouTube kanala ere badu: Trikileku. Bisi-tak Euskal Herritik zein munduko zenbait txokotatik jasotzen ditu. Ikasleei banako eskola ematea gustatzen zaio, eta trikitia jotzen lehen egiten zen moduan iraka-

esan, orain lehen baino ordu gehiago ematen ditut hemen, ze lehen leku batetik bestera ibiltzen nintzen egun osoan". Bertoko soinu tresnen elkarrean ere izan zen irakasle, eta *Zamudio lehen, orain eta beti* diskoan hartu zuen parte. "Zamudio oso berezia da niretzat, bertan emandako urteengatik eta zenbait belaunalditako gazteei eskola eman dietalako. Gainera, urtero San Tomas jaietan jotzen dugu eta nabaritzen dut hainbat urteren ondoren bertoko herriartzat naukatela; maitasuna sentitzen dut".

tsi: maisua eta ikaslea aurrez aurre, soilik instrumentuak lagunduta. "Urteetan ez da partiturarik egon; orain badaude eta irakasleontzat eroso izan daiteke ikasleei esatea hurrengo eskolarako, adibidez, bosgarren orrialdea ikas dezatela. Halere, hori bakarrik eginez gero, pieza-jotzaileak baino ez ditugu heziko. Nik ikasleei dena jakin behar dugula diotset: partitura irakurtzen, entzunez jotzen, kantu bati audioa atera eta tonua aldatzen... Parti-

Libre dagoen txoriak fasil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIRAKO UDAL
EUSKALTEGIA



**"Abendua jai huts
eta gau huts"**

Atsotitzak eta esaera zaharrak liburutik hartuta

**GABON ZORIONTSUAK ETA
URTE BERRI ONI
GABONETAN ERE,
EGIZU EUSKERAZ!**



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrir.eu

turarekin gabiltzanean irakurtzen dugu; belarriz gabiltzanean, ordea, kantuaren barruan sartzeraren behartuta gaude, doinurik gogoratu ezean jai dugulako. Beraz, belarrira eta sorkuntza aktibatzen dira. Eta ez dut esan nahi guztiok konpositoreak izan behar dugula, baina, nire ustez, garrantzitsua da pieza bat entzun eta momentuan jotzea, gure hutsegiteekin; gero joango gara lantzen eta hobetzen. Sortzeko orduan ere bakarrik behar ditugu trikitia eta gogoa: jo, grabatu eta gero idatziko dugu". Horri lotuta, ikaslearen sormenezko lana beti txalotu eta goraipatu behar dela adierazi du. "Bere buruan musika dantzan dagoela esan nahi du eta aintzat hartu behar da". Ikasleek berari buruz oso irudi positiboa izatea gustatuko litzaioke, eta lagundu diela pentsatzea.

Baikor

Bere ibilbidean, kolaborazioak egin ditu hainbat musikarirekin, hala nola Oskorri, Kepa Junkera eta Ganbara taldea. Anxo Lorenzo gaita-jotzailearen eta Xavier Diaz abeslari galiziarren lanetan ere hartu du parte, eta irribarrez gogoratu du Carlos Nuñezekin Madrilan eman zuen kontzertua. "Paddy Moloney eta Jon Pilatzke The Chieftaints talde irlandarraren kideak ere izan ziren emanaldi horretan, ni beraiekin oholtza gainean, eta kontzertuan ibili nintzen ez nekiela eurei ala publikoari begiratu". Halaber, Gwendal Frantziako taldeak 2015ean Getxo Folk jaialdian grabatu zuten diskoan parte izan zen. "Balio handiko kolaborazioak



dira guztiak. Beste ukitu eta ikuspuntu bat duten musikariak dira eta oso polita da euren lanari ekarpena egin ahal izatea. Bestalde, trikitia eta bere soinua lau haizeetara zabaltzen laguntzen duzu".

Trikitilariaren esanetan, instrumentuak askatasuna eman dio eta bere nortasuna erakusteko gailu bilakatu da. Baikor agertu da trikitiaren etorkizunari dago-kionez. "Ikasle-kopuruaren harira esango nuke, 90eko hamarkadan gertatu zen moduan, boom bat egongo dela. Garai hartan erromeria asko izan ziren, eskola pila bat, disko anitz... Ostean beherakada egon arren, trikitia egonkortu egin da eta hainbat lekutan dago: erromerietan, folk zirkuituetan, rock taldeetan, tradizioari eusten dioten trikitilariak, pieza zaharrak

berreskuratzen dituztenak...". Haatik, kezkatuta azaldu da gaztetxoek dituzten eskolaz kanpoko ekintzekin. "Gehiegi dira askotan eta denbora gutxi dute aisialdiko. Horregatik saiatzen naiz trikitia aisialdiaren barruan sartzeko, eta esaten diet hau ez dela ikastetxea eta hemen gozatzeko gaudela. Eskola dibertigarria izaten saiatzen naiz, eta euren talde kutunen abestiak ere jotzen ditugu". Gazteak balioetsita sentitzea ezinbestekotzat jotzen du, eta trikitiaren bidez beraiek alaitzen ere ahalegintzen da, gainerako lanei pozik heldu ahal izan diezaieten. "Trikitia eta musika zoriontasuna dira niretzat. Jotzen nabilen bitartean ez dago arazorik, ez beste ezer; kezkek desagertu egiten dira eta ikasleei hori helarazten saiatzen naiz".

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

sarraila-denda Txorierri

ADITUAK, SARRAILAGINTZAK ETA SEGURITASUNEA

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 Iorja
48160 Derio

aldeko one
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea:
umeak

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

"Jolasak txipa aldatu deust euskeraz gehiago egiteko"

MAIALEN MONASTERIO | Gurot jolasaren irabazlea

Maialen Monasterio lezamarra *trivialzalea* izan da beti; beraz, ez jakon Gurot lehiaketan parte hartzea kostau. Gazteak 15 urte daukaz, eta bere zaletasunari esker *escape room* batera joateko gonbidapena jaso dau, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunidadearen eskutik.

t: Lezamako Udalak babestua

Zelan ezagutu zenduan Gurot lehiaketea?

Institutuan emon euskuen Gurot lehiaketaren barri. E-posta bat bialdu euskuen eta parte hartzera gonbidatu ginduezan. Beti izan naz Trivial moduko

jolasen zalea eta telefonoan gaztelaniaz olgau ohi neban. Beraz, pentsau neban dibertigarria izango zala: euskera badakit, olgetan ibiltzea gustetan jat eta, ganera, sariak irabazteko aukerea eukiko dot. Zer-gaitik ez! (kar, kar).

Bakarrik emon zenduan izena edo lagunakaz?

Hasikeran, bakarrik, baina gero konturau nintzan lagun batzuk be olgatzen ebela. Jolasak lagunaren arteko erronkak botateko aukerea emoten deust eta dibertigarria da, gure arteko pikeak-eta sortzen diralako.

Zelan hartzen da parte lehiaketan?

Erraza da. Aplikazioa deskargatu behar da sakelako telefonoan; gero, erabiltzailea sortu, hau da, erabiltzailearen izena eta pasahitza asmatu, eta helbide elektronikoa emon. Eta azkenik, olgatu. Eta olgetan dozunean, puntuak pila-tzen dozuz.

Noizero olgatzen zenduan?

Astean lautan edo, bost minutuan aldi bakotxean. Denpora askorik ez (kar, kar).

Zelan enterau zinan irabazleetako bat zinala?

Mankomunidadeak e-posta bat bialdu eustien. Pentsatzen neban sariak ekai-nean banatu ziral, baina gero be beste sari batzuk emon dira. Poz-pozik nago.

Zer irabazi dozu?

Escape room batera joateko sei gonbidapen emon eustiezan. Lekua Bilbon dago eta lagunakaz joango naz Gabonetan. Ez naz inoz horrelako leku batera joan. Baldintza bat jarri deustie: nigaz etorten diranek be jolastu behar izan dabe Gurot jolasean, hau da, erabiltzailea eginda euki behar dabe.

Jolasaren galderak gaika dagoz bananduta: zein dozu gurago?

Zientzak eta ikuskizunak, betiko Trivial jolasean, berdea eta arrosa koloreak diranak. Beste esparruetan arazoak dodaz batzuetan (kar, kar).

Jarraituko dozu olgetan?

Bai. Eta sariak lortzeko aukerea badot, askoz hobeto (kar, kar).

Bakarrik olgetan dozu?

Normalean bai, baina etxean banago eta galderaren bat ez badakit, aitari edo amari galdetzen deustiet.

Zer deritxazu proiektuari? Uste dozu benetan euskeraren erabilerea sustatzen lagunduten dauela?

Ondo deritxot, jakina! Jolasa entrete-nigarria da eta, ganera, sariak banatzen dira irabazleen artean. Helburua betetzea? Nik esango neuke baietz: normalean gaztelaniaz egiten dot berba lagunakaz, eta eurakaz olgetan dodan guztietan, os-tera, euskeraz egiten dogu berba. Txipa aldatzen deust, galderak-eta euskeraz dagozalako, eta, azkenan, euskeraz olgetan dozu.

Gurot lehiaketa

Gurot! jolasa Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Txorierriko Mankomunidadeak eta Uribeke beste udal batzuk sortu dabe. Aplikazioa 12-17 urte bitarteko gazteentzat prestau da, eta jolasak gazteen aisialdian euskeraren erabilerea sustatzea dau helburu.

Aplikazioa Trivial jolasaren modukoa da: kultura unibertsala eta euskal kultura euskeraz eta online lantzeko jolasa da, galdera-erantzunen bidezko nor-gehiagoketan oinarritutako jolas interaktiboa, hain zuzen be.



Abenduak 23, astelehena

–11:00-14:00 Gabonetako apaingarriak, Ludoteka In.

–11:00-14:00 Gabonetako zuhaitza, Ludoteka In.

–17:00-21:00 Gailetak egiteko tailerra, Gaztetxean.

Abenduak 24, martitzena

–11:00-14:00 Itsasoa 3D, Ludoteka In.

–11:00-14:00 Mahai-futbol txapelketa, Ludoteka In.

–17:00 Olentzero eta jaiotza biziduna. Kalejira, udaletxetik Goronda Beko kirolde-

Sondika

gira. Antolatzaileak: udala, Txuma Olague, Gorantzaileak taldea, Ipar Elaiak txistu taldea eta Gorondagane guraso elkarteak.

Abenduak 26, eguena

–11:00-14:00 *Un pliegue en el tiempo* filma, Ludoteka In.

–17:00-21:00 Filma, Gaztetxean.

Abenduak 27, barikua

–11:00-14:00 "Zelan sentitzen zara?", Ludoteka In.

–17:00-22:00 Show magikoa, Oliverren eskutik. Gaztetxean.

Abenduak 28, zapatua

–17:00-22:00 Arku-tiroa, Gaztetxean.

Abenduak 29, domeka

–17:00-21:00 Gabon zaharrerako orrazkerak egiteko tailerra, Gaztetxean.

–12:00-14:00 eta 17:00-20:30 Txiki Egu-na, Gorondabeko kiroldegian.

Abenduak 30, astelehena

–12:00-14:00 eta 17:00-20:30 Txiki Egu-na, Gorondabeko kiroldegian.

–17:00-21:00 Turroi-mousea, Gaztetxean.

Abenduak 31, martitzena

–11:00-14:00 "Txin-txin", Ludoteka In.

–11:00-14:00 Ping-pong txapelketa, Ludoteka In.

Urtarrilak 2, eguena

–11:00-14:00 Bingo, Ludoteka In.

–17:00-21:00 Filma, Gaztetxean.

Urtarrilaren 2tik 30era

–Gabonetako postalak ikusgai, Erakusketa Aretoa.

Urtarrilak 3, barikua

–11:00-14:00 *Se armó el Belén* filma, Ludoteka In.

–17:00-22:00 Bocabeats Comedia taldearen ikuskizuna, Gaztetxean.

Urtarrilak 4, zapatua

–17:00-22:00 Dama-joko torneoak, Gaztetxean.

Urtarrilak 5, domeka

–18:00 Erregeen kabalgata, aireportu zaharretik.

–20:00-22:00 Dj jaia, Gaztetxean.

Se armó el Belén filma. a: oihaneder.eus



Abenduak 24, martitzena

–17:00 Olentzero eta Mari Domingi. Kalejira, gaztaina erreak, gozokiak, opariak... Udalak antolatuta hauen laguntzarekin: Zorritzetan euskara elkarteak, Kurutze dantza taldea, Ekidazu abesbatza eta herriko trikitilariak.

Abenduak 27, barikua

–18:00 *Ipuinak dantzatzeko*, Ana Apika ipuin-kontalariarekin. Kultura Aretoa.

–20:00 Azken barikuak: Natali taldea, Oxangoiti tabernan.

Abenduak 28, zapatua

–19:00 Behi Bideko Andere Xuriak taldea, Andra Mari elizan. Zorritzetan euskara elkarteak antolatuta.

Lezama

Urtarrilak 3, barikua

–11:30-13:30 eta 16:30-20:30 Umeen Gabonetako parkea, frontoian: ludoteka, puzgarriak, tailerrak...

Urtarrilak 4, zapatua

–11:30-13:30 eta 16:30-20:30 Umeen Gabonetako parkea, frontoian: ludoteka, puzgarriak, tailerrak...

Urtarrilak 19, igandea

–09:30 Otoiora irteera, Gailur mendi taldeak antolatuta. Eskolan.

Urtarrilak 25, zapatua

–08:30 Costalerara irteera, Gailur mendi taldeak antolatuta. Plazan.

Ana Apika





Loiu

Abenduak 24, martitzena

–12:00 (Larrondo) eta 17:00 (Zabaloetxe)
Olentzeroren eta Mari Domingiren kabal-
gata. Opariak banatzea.

Abenduak 26, eguena

–18:00 *Izaba Tekla* umeentzako ikuskizu-
na, Larrondoko Zentro Zibikoan.

Abenduak 27, barikua

–18:00 *Elefante bitxi bat* umeentzako txo-
txongiloak, Zabaloetxeko Kultura Etxean.

Abenduak 30, astelehena

–10:15 (Zabaloetxe) eta 10:15 (Larrondo)
Gabonetako Umeen Parkera irteera (BEC).
Izena emateko azken eguna, abenduaren
26a, liburutegian.

Abenduak 31, martitzena

–10:00 Lainomendira irteera, udaletxean.



sarrerren salmenta

www.bbk.es

bbk

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO: TXARTELDÉGIAN
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

ZINEA

2D: 4 € 3D: 6 €

BON DIEU?
AG 88' (2D)
Urtarrilak 12, 17:00

LA GALLINA TURULECA
AG 79' (2D)
Urtarrilak 25, 17:00

SPY CAT
AG 88' (2D)
Urtarrilak 12, 17:00

DIOS MIO ¿PERO QUE TE HEMOS HECHO... AHORA?
EG-7 98' (2D)
Urtarrilak 12, 19:30

ESPIAS CON DISFRAZ
AG (2D)
Urtarrilak 19, 17:00

STAR WARS: EL ASCENSO DE SKYWALKER
EG-7 144' (2D)
Urtarrilak 19, 19:30

MUJERCITAS
AG 134' (2D)
Urtarrilak 25, 19:30

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatetak jasan ditzake



Abenduak 23, astelehena

–Marrazki lehiaketa, Ludotekan.

–19:00 Gabonetako tailerra, material birziklatuarekin. Gaztestazioan.

Abenduak 24, martitzena

–09:30 Gabonetako plater-tiroko saioa, Zamudio Ehiza eta Arrantza Elkartearen eskutik. Teknologia Parkeko tiro-zelaian.

–10:00 Baserrietatik abestea, Zamudioko Kamara Korallarekin.

–13:00 Ibilbidea herrigunetik. Sabino Arana plazan.

–13:30 Bazkaria, tailerrak, jolasak eta sorpresak, Kultura Etxean (Begiraleak egongo dira / ume bakoitzak bere bazkaria eramango du).

–16:30 Olentzero eta Mari Domingi bila. Kultura Etxean.

Zamudio

–17:00 Olentzerorekin eta Mari Domingirekin elkarretaratzea.

–18:30 Gutunak ematea eta txokolatada, frontoian.

Abenduak 26, eguena

–16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

–19:00 Dixit jolasaren txapelketa, Gaztestazioan.

Abenduak 27, barikua

–16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

–18:00 Gabonetako postre tailerra, Gaztestazioan.

Abenduak 28, zapatua

–11:00 Barakaldoko BECera irteera. Gaztestazioak antolatuta.

–16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

–19:00 Zamudioko Kamara Korallaren Gabonetako kontzertua, San Martin elizan.

Abenduak 29, domeka

–16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

–18:00 Filma, Gaztestazioan.

Abenduak 30, astelehena

–Marrazki lehiaketa, Ludotekan.

–16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

Abenduak 31, martitzena

–09:00 Elorriora irteera, Arroeta mendi taldearen eskutik.

–09:30 Gabon zaharreko plater-tiroko saioa, Zamudio Ehiza eta Arrantza Elkartearen eskutik. Teknologia Parkeko tiro-zelaian.

–01:00-05:00 Urte amaierako kotilioia, Adintsuen Etxean.

–Gabon zaharreko autobusa. Izena ematea, abenduaren 29a baino lehenago Gaztestazioan. Adingabekoek gurasoen baimena beharko dute.

Urtarrilak 2, eguena

–18:00 Gabonetako postre tailerra, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: abenduaren 29a.

Urtarrilak 3, barikua

–16:00 Bilboko izotz-pistara irteera. Izena emateko azken eguna: abenduaren 29a, Gaztestazioan.

Urtarrilak 4, zapatua

–11:00 Nekazamudio azoka, Kultura Etxean.

–19:00 Arku-tiroa, Kultura Etxean, Gezi Bide elkartearen eskutik. Izena emateko azken eguna: abenduaren 30a, Gaztestazioan.

Urtarrilak 5, domeka

–19:00 Urteberriko jaia, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: abenduaren 29a.



Dixit jolasa.
a: amazon.com

Larrabetzu

Abenduak 23, astelehena

–15:30 Olentzeroren bila, plazan. Hori Baik antolatua.

Abenduak 24, martitzena

–18:30 Olentzeroren Eguna, zerrategian. Hori Baik antolatua.

Abenduak 25, eguaztena

–19:00 Bertso-jaialdia: Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Jone Uria eta Igor Elortza. Ostein, Dj Reimy. Hori Baik antolatua.

Abenduak 26, eguena

–Bizkaia Park Abenturara irteera (2007-2015 urte bitartean jaiotako umeentzat).

Abenduak 27, barikua

–18:30 Bizkargi dantza taldearen saioa, frontoian. Bertan 60 lagun inguru batu-ko dira: oraingo eta lehengo dantzariak, Zintarritik taldeko musikariak eta Itallen eskolako bertsolariak.

Abenduak 28, zapatua

–20:00 *Agur eta dolore* antzezlan, Darabilguren eskutik. Hori Baik antolatua.

Abenduak 31, martitzena

–12:00 "Uriari buelta" X. lasterketa, plazan.
–Gabon zahar gaua. Gaia: telesailak. Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 2, eguena

–Pobaleko burdinolara irteera (2007 eta 2015 urte bitartean jaiotako umeentzat).
–16:00 Puzgarriak, frontoian.

Urtarrilak 4, zapatua

–09:30 auzoz auzo, plazan.

Urtarrilak 5, domeka

–18:30 Brigada internazionalisten abes-
tiak. Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 6, astelehena

–18:00 *Ilargiaren sekretua*, umeentzako
pelikula. Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 10, barikua

–18:00 "Etxebizitzaren arazoa" hitzaldia,
Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 11, zapatua

–Preso eta iheslarien aldeko Bilboko ma-
nifestaziora joatea. Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 12, domeka

–18:30 43°13'44"N antzezlan, Hori Baik
antolatua.

Derio

Abenduak 23, astelehena

–20:00 Gabonetako gala, Kultur Biri-
kan: emanaldiak, zozketak, omenal-
diak... Udalak eta Danerik Paraje! el-
karteak antolatua.

Abenduak 24, martitzena

–11:00 Xakea: tokiko opena zaleen-
tzat, kiroldegian. Xake taldeak anto-
latua.

–17:00 Olentzerori eta Mari Domingiri
harrera, Errekalde parkean. Antola-
tzaileak: udala, Ipar Alde abesbatza
eta Jantzi Jarauntsi Troupe.

Abenduak 27, barikua

–18:00 Nagusien jaia, Kultur Birikan.
Ipar Alde abesbatzaren emanaldia.
Udalak eta Nagusien Etxeak antola-
tua.

Abenduak 28, zapatua

–11:00-19:00 Gabonetako umeen
parkea, kiroldegian. Puzgarriak eta
tailerrak.

Abenduak 29, domeka

–11:00-19:00 Gabonetako umeen
parkea, kiroldegian. Puzgarriak eta
tailerrak.

Abenduak 31, martitzena

–11:30 Xakea: Gabonetako aldibere-
koak, kiroldegian. Xake taldeak anto-
latua.

Urtarrilak 4, zapatua

–18:30 Lainomendi dantza taldearen
emanaldia, kiroldegian.

Urtarrilak 5, astelehena

–18:30 Erregeen kabalgata. Irteera,
Kultur Birikatik; agurra, udaletxean.

Urtarrilak 10, barikua

–19:30 Kirol-ekitaldia, Kultur Birikan.

Urtarrilak 11, 12, 18 eta 19, zapa- tua eta domeka

–17:00-20:00 Derio olgetan, frontoian.

Urtarrilaren 13ra arte

–Argazki Lehiaketaren argazkiak ikus-
gai, Kultur Birikan.



Pobaleko burdionola. a: bizkaia.eus

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokuntza
Auzokoen konsumitzaileak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Iturriak eta lokalki
Olinu emeneko garbiketa
Bantotekak
Zabur bilketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA

ULEAPAINDEGIA

MUNGIALDE ETORRIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izuguz Facebook-en

KAFETEGIA

IAZI
JATETxea

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



...nola igarri orduan, iragan hau guztia betiko izango genuela aurretik...

t/a: Gaizka Peñafiel



Berri Txarrak taldea duela urtebete iragarri zuen etenaldi mugagabea, eta konturatu orduko agertokia hutsik geratu da. Izan ere, taldea azaroaren 23an agurtu genuen merezi bezala: salto, negar, irribarre, oihu eta txalo artean.

Urte honetan BTXen 20 emanaldi gorde ditut irudietan: Gernika, Durango, Bartzelona, Donostia, Bilbo, Madrid, Gasteiz, Biarritz, Iruñea... Abentura izugarria izan da eta pribilegiatua sentitu naiz. BTX Euskal Herriak eman duen talderik handiena delako, inork pentsatuko ez lituzkeen saiaiak eta hormak hautsi dituenak. Lekunberrietik mundura, bihotzetik bihotzera... Lehen egunetik azken egunera pasioz eta euskaraz. Gorka Urbizu musikari eta poeta apartaren gidaritzapean, esparru artistikoa gaingitu du eta sentimendu bilakatu da Berri. Hori bizirik mantentzea da orain gure ardura, haria ez dadila eten.

Eskerrik asko bihotzez Gorkari, Galderri, Davidi, Aitor G.ri, Mikel "Rubio"ri, Aitor O.ri eta BTXCrew guztiari.

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781


Bizkargi Kafetegia
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



BASALBEITIKO TXAKOLINA

Birkatko Txakolina
Txakolina eta abar



Gaitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

TURREGOITI JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com



elekma


UPATZEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELURISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXAKAK

lehenengo markak • Prezioak onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txakori etorbidea, 25-3.N. 48180 Lolu
T. 944 539 232
www.elekma.es



Einer Larrabeiti Zaratek norbere buruarekin eta gainerakoekin dugun jokabideari buruz hausnartzen du. Egunerokotasunean aurki ditzakegun egoera eta sententzioak ardatz hartuta, hainbat gairen inguruan mintzatuko da sail honetan.



Begiak itxi

Olentzero, aurten oso ondo portatu naz, eta horregaitik, hau guztiau eskatzen deutsut Gabonetarako: besteei ni gehiago baloratzea, jendea eta gizartea "halakoak" izatea, planeta zaintzea, modako arropa, dirua...

t: Einer Larrabeiti

Olentzero maitea:

Aurton... ez gara onak izan. Errealista izateko, txarrak be ez. Agian, esnatzen garan egunean, "on" eta "txar" adjektiboen bidez baloratzeari itxiko deusagu. Ze, norberak bere baremoak daukaz hori baloratze, gura dauanaren arabera; gure begiratzeko modua neutroa izatetik urruti, subjektiboa izan ohi da. Beraz, zer da ondo eta zer txarto?

Adibidez: "Gutxi bat dozu ikasgai honetan, oso txarto egin dozulako" –eskerrik asko zuzentzaile, askotarako balio deust–; "Jo, onena zara. Beti jartzen dozu nik gura dodana zuk nahi dozunaren aurretik" –mila esker lagun, hori egiten ez dodanean, ni errudun bihurtzearen–. "Ondo portatzen ez bazara, Olentzerok jakingo dau, eta ez da etorriko..."

Ikusi ahal dozu Olentzero? Azken finean, hainbeste kritikatzeko dogun obediencia eta kontrola sustatzen doguz,

gura barik bada be. Eta nondik dator hau? Ziurrenik, gure buruaren erantzule garala ez dogulako ikasi. Ostera, menperatzaile eta menperatuaren harremanean geratu gara (rol batean edo bestean, bietan, eskatuz): gauzak "halan" egin behar dirala dinoana, eta ados egon barik kasu egiten dauana, diktadorea eta jarraitzaileak, erasotzaileak eta erasotua, aukeratu ez ditugun alderdi politikoak eta botoa eman behar duen herria. Jabea eta esklabuaren jolas krudelean, bai. Izan be, obeditu ezean, ondorioak izan ohi ditugu: epaitu, preso sartu, mespretxatu, jipoitu, hil edo gura ez dan politikak irabaztearen konplize izatera derrigortuko gaitue. Halan, gainerakoei eskatzen, itxaroten edo inposatzen ibiltzen gara, guk geure buruari behar doguna emon beharrean; ez deus-kuelako erakutsi. Halan be, lasai, ez haserratu, edo... haserratu. Baina denbora askorik ez galdu halan, ez dau guk geure buruari min gehiago emoteko baino balio-eta. Gauzak aldatzeko, geugandik hasi behar dogu eta, horretarako, gugandik kanpo dagoenari eskatzeari itxi. Uste doguna baino gehiago egin ahal dogu geuretzeko, gaitasuna barruan dogulako. Hasteko, tratua: errespetua, maitasuna, arreta, ametsak egia bihurtzeko baimena. Gogoratu, nor-nori-nork: tratu hori-niri-neuk. Eta igaro gaitezko ahileratik, orainaldi sinplera.

Olentzero, ados bazagoz, jarraitu egi zu opariak banatzen, izan daitezala ezustekoak; ume izan zein nagusi izan, ilusinoak mantentzea munduko gauzarik politenetarikoa da eta. Gure aldetik, gutuna idazten jarraituko dogu, baina opari-zerrendaren orde, aurton zer ikasi (ez estudiatu) eta zer eskertzen dogun idatziko dogu. Ia zer gertatzen dan.

Modu osasuntsu honetan existitzen jarraitu dagizula. Egubari on.

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

t: Juan Luis Goikoetxea / a: www.berries.com

2019a ordu barik geratzen ari denean, mila esker esateko unea topatu behar genuke, ze, zalantza barik, esker ona zor izango diogu norbaiti. Gure etxean askotan entzun dugu amagandik: "Osasuna esker bako ondasuna". Antzera mintzatu-ko ote gara euskaldunoi buruz, esanez: "Euskalduna esker gabeko laguna"?

Agur interjekzioa eta egun on loku-zioa arruntak dira guretzat. Eskerrik asko, oster, nekezago entzuten da. Badirudi lotsorrek garela, esker mila edo ebaki bat mesedez esaterakoan. Berbeta latza, za-

karra, sarriago entzuten da gozoa baino. Hain gaitza ote da ederra eder dela edo ona on dela esatea? "Hi bai sukaldari ona" edo "Guaparik zer hator ba!" azaltzea?

Edonola ere, aurtengo urtea badoa. Ez zaigu geratzen egun askorik esker oneko

Eskerrik asko esateko azken egunak

Jendetasunez bizi

izateko edo adeitasunez jokatzeko. Behar bada, gehiegitzo izango da postala idazteko eskatzea; gutxiago kostako da telefono deiaz esker mila adieraztea; ezer gutxi, seguru asko, mugikor bidez eskerdun agertzea.

Hartu-emanen bizi gara, Zer-Nori-Nork komunitatean. Eskerrak norbaitek ematen dizkio beste norbaiti. Horregatik, bakarrik bizi denak, zoriontasun itzela sentituko du, zuk berari esker ona nahiz adiskidetasuna erakutsiz. Eta, esate baterako, pertsona bakartia Eguberrietan afaltzera gonbidatuko bazenu? Orduan ez litzateke egia izango "euskalduna esker gabeko laguna" perpausa.

Gabon zaharretarako egun laburrak geratzeak ez liguke galarazi behar utopia, ametsak errealitate bihurtzea, beste mundu bat eta beste Euskal Herri bat posible dela sinestea. Solidaritatea aipatzea txori handia bilatzen hastea izan liteke, baina kolore askotako eskerrik asko artean bizitzea, tximeletak loreetan pausatzen ikustea, ez da ezinezkoa, bihotz kontua besterik ez da.

Zeinek ote atsegin handiagoa, eskerrik anitz dioenak ala entzuten duenak?



GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertoblizao.com

DESCARGA APP-A

TAXI FEMADE

JB Construcciones-Reformas

IÑIGO BARCENA

Igeltserotza orokorra

Espezializatea:
Xalfo-lanak
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772016

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



Etxeko sukaldaritza

Zainzuri berde kremea

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 400 g zainzuri berde
- Kipula bat
- Porru bat
- Patata handi bat
- Litro bat barazki-salda
- Oliba-orioa eta gatza

Prestetako erea:

Kipulea eta porrua garbitu eta txikituko doguz. Lapiko batera botako

doguz orio-zurrusta bategaz eta su ez-tian erregosiko doguz 10 minutu inguru. Zainzuriak garbituko doguz eta lau punta gordeko doguz kremea apaintzeko. Zainzuriak eta patatea gehituko doguz, eta barazki-saldea. Hogei minutuan egosiko dogu. Gatza zuzenduko dogu eta irabiau-ko dogu. Zainzuri-puntak zartagin baten prijiduko doguz eta kremea apaintzeko erabiliko dogu: zainzuri-punta baktotxa, plater baten.

a: lacocinaconthermomixx.wordpress.com



Labean egindako gaztai-tartea

Osagaiak (zortzi lagunentzat):

- Kilo bat gaztai (Philadelphia edo antzekoa)
- 500 ml esnegain
- 300 g azukre
- Koilarakada bat gari-urun
- 4 arrautza

Prestetako erea:

Hogeita zortzi zentimetroko labarako molde bat prestatuko dogu: labarako papera bustiko dogu, zimurtuko dogu eta moldean ipiniko

dogu. Labea berotzen dan bitartean (175 gradutan), osagaiak nahastuko doguz: gaztaia eta esnegaina kremea egin arte, arrautzak banan-banan, azukrea eta, azkenik, uruna. Labara sartuko dogu 50 minutu inguru: kolore txigortua hartzen dauanean eginda egongo da. Labea amatatuko dogu eta bertan beste ordu erdi baten izango dogu. Atera, eta hozkailuan hotzitzuko dogu. Jan baino 30 minutu lehenago aterako dogu hozkailutik. Tartea bezperan egiten bada, hobeto.

t: Maite Lekerika

a: juliaysusrecetas.com



Lebatza, laranja- eta limoi-saltseagaz

Osagaiak (lau laguntzat):

- 200 gramoko lau lebatz-solomo
- Kipula bat
- Porru bat
- Laranja baten eta limoi erdi baten ura
- Txakolin-zurrusta bat
- 500 ml barazki-salda
- Oliba-orioa eta gatza

Prestetako erea:

Kipulea eta porrua txikituko doguz, eta su ez-tian erregosiko doguz 15 minu-

tu inguru orio-zurrusta bategaz. Txakolina bota, eta minutu pare batean egingo dogu. Ondoren, laranja- eta limoi-ura eta saldea gehituko doguz, eta beste ordu laurden baten egosiko dogu. Gatza zuzenduko dogu eta irabiako dogu.

Beste alde batetik, plantxa edo zartagin bero baten arraina prijiduko dogu alde bietatik. Arraina saltsean sartuko dogu minutu pare baten eta zerbitzatuko dogu.

Zorionak eta Urte Berri On

Liliak
Loradenda

www.liliak.net
facebook: liliak loradenda
amaiarementeria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO
94 454 12 23

tximintx
KOMUNITATEA

Gabonetan be EUSKARA AHOAN!

Gozatu euskaraz!

Derio



a: annarecetasfaciles.com

ANKAPAZU

LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



Lainomendi

ren
Gabonetako ekitaldia

**Urtarrilaren 4an
arrastiko 18:30ean
Derioko kiroldegian**

Zorionak eta urte berri on !!





electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 - Telf. / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)

OPTIKA
moderna

Ikusmena graduatzea
Zenbait motatako betaurrekoak
Lentillak egokitzea

Aizkorri, 1
48160 Derio

 94 454 37 99
www.opticamoderna.es

TXORIERRIKO AEK ■ euskaltegia



Zorionak eta urte berri on!
**Eutsi euskaraz berba
egiteko konpromisoari**

aek
Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia
aurretiko hitzordua
solariuma

9 4 4 5 4 3 5 8 0

Gorbea 8, Derio 48160

Txorierri Et., 30
48150 SONDIKA

 94 453 35 05
667 78 63 31



**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**

Gorbea, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Umeen txokoa: 7 desberdintasunak

Ezetz 7 desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: pasatiemposinfantiles.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- 17 segundo (Susa), Kirmen Uribe.
- Lardaska (Txalaparta), Patricia Highsmith; Josu Barambones Zubiria (Itzultzailea).
- Mundu bat motxilan: Alex Txikonon menditazioak (Sua edizioak). Unai Ormaetxea.
- Bihotzaren ipar aldea (Erein), Dolores Redondo Meira.
- Basatza (Ataramiñe). Hodei Ijurko.
- Magali ez dago bakarrik (Elkar). John Andueza.

LITERATURA: GAZTEAK

- Lo Poto (Alberdania). Zenbait egile.
- Amonaren ipuin magikoak (Ataramiñe). Joseba Errostegi Bidaguren eta Lorea Errostegi.
- Euskal Herrietako ipuin harrigarriak III (Txalaparta). Elena Odriozola eta Juan Kruz Igerabide Sarasola.
- Wonder. Mutiko miragarria (Denonartean). Raquel Jaramillo

Sudokua

	3	7			4			
5				6		8	4	
				7	9			
7	9	3						
1				8			7	
	4						9	
				9				6 1
8					3	1		
	1			4	6			

8	2	3	5	9	7	2	1	6
7	6	5	1	3	2	9	4	8
1	9	2	4	8	6	7	5	3
5	1	6	9	2	3	8	7	2
3	2	4	6	7	8	5	9	1
9	7	8	2	5	1	3	6	4
2	5	9	3	6	4	1	8	7
4	3	7	8	1	9	6	2	5
6	8	1	7	2	5	4	3	9



LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheia B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

PiKoteo Taberna

KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 782

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

Gabonetan be
euskeraz bizi

ZORIONAK

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
ALKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com

**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 10 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

KILZA
ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENA

Larrabari ibilbidea 1, behea
48160 DERIO
669 51 63 11 / 94 474 46 29
bilzaelectricidad@gmail.com

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19

SUGOI TABERNA
Byron

Wi-Fi

628 77 30 17
Goiko kalea, 2 behea
Derio (BIZKAIA)

ALZARA
Sondikako euskara elkarte

ORIONAK
RTE BERRI ON!



ARE TXA BALA

LARRABETZU BIZIRIB

ETKEEN GURA DOGUZ GABONETAN

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64

IRUSTA TABERNA

EGUNEROKO MENUAK eta GAUEZ

MUSIKA ETA PARRANDA

Etxean gura doguz Gabonetan!

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub



ETORKI TABERNA

Eguneroko menua
Asteburueta menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU (Bizkaia)

FOTERI TABERNA

Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98



48195 LARRABETZU-Bizkaia

ikastegi homologatua

LARRABETZU MUSIKA ESKOLA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



Errebale, 7 behea
94 455 70 66



Aliprox

Ondo pasa jaietan!


INES JANARI-DENDA

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33

ZORRIZKETAN

LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

Gabon zoriontsuak lezamar eta txorierritar guztioi



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA



LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIDIA! DURANGON
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTEGIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g - 48196 LEZAMA
Tel.: 94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 - 48100 MUNGIA
Tel.: 94 674 33 40

Arteaga ESTANKOA

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel: 94 454 15 41
estancoderio@gmail.com





*Txorierriko Mankomunitateak eta Udalek
zorionak eta urte barri on
opa deutsuez*

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO UDALAK

DERIO | LEZAMA | LOIU | LARRABETZU | SONDIKA | ZAMUDIO

www.txorierri.eus



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA